

# Oroitzapenezko artefaktuak



Ingurune hurbileko memoria-irudikapenei buruzko ikerketetatik abiatuko gara, kezkatzen gaituzten gai eta auziei buruzko gure oroitzapen-lanak sortzeko.

## Helburuak

- Taxio Ardanazen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Oroitzapenezko monumentuaren kontzeptua gure ingurune hurbiletik lantzea.
- Sorkuntza-teknika zein sorkuntza-estrategia garaikideekin esperimentatzea, banaka eta taldeka.
- Kezkatzen/okupatzen gaituzten gertaerei eta kausei buruz hausnartzea eta horiek irudikatzeke irtenbide plastikoak bilatzea.

## Aipamenak

**Oroitzapenezko monumentua** - Wikipedia: [https://es.wikipedia.org/wiki/Monumento\\_commemorativo](https://es.wikipedia.org/wiki/Monumento_commemorativo)

**Nafarroak dagoeneko memoria historikoaren sei leku ditu:** <https://www.navarra.es/eu/albisteak/2019/04/26/nafarroak-dagoeneko-memoria-historikoaren-sei-leku-ditu>

**Luz perpetua liburua (2014)** - Taxio Ardanaz: [https://issuu.com/taxioardanz/docs/luz\\_perpetua](https://issuu.com/taxioardanz/docs/luz_perpetua)

**Causa** - Taxio Ardanaz - aldizkaria: <https://www.dropbox.com/s/nejug7g3y0r1zop/Causa-TaxioArdanz-Peri%C3%B3dico.pdf?dl=0>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** *Venceremos, Causa* edo *iA pesar de todo!* proiektuetako zenbait lan ikusten ditugu.

- Gudarekin edo oroitzapen-monumentuetako gatazkekin lotutako ikurrak eta ikusizko beste elementu batzuk detektatu eta aztertzen ditugu. Taxiok ikertu dituen oroitzapenezko monumentuak erakutsiz laguntzen gara (Pàndols mendilerroko monumentu errepublikarra, Mexikoko Iraultzarena, Espainiako Gerra Zibilarena).

- Erabiltzen dituen teknikei, pintatzeko moduari eta bere lanak erakusten dituen moduari erreparatzen diogu.

**2.** Gatazka-egoeretara garamatzaten sinboloen, monumentuen, esaldien edo bestelako ikusizko elementuen zerrenda bat egiten dugu. Marrazkiekin eta kontzeptuekin ikusizko mapa bat sortzen dugu.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Gure inguruko memoria-elementuak ikertzen ditugu. Arreta jartzen diegu ofizialak ez direnei: muralak, etxeetan jarritako argazkiak, areka edo kaleetako aldare inprobisatuak... Ikasle bakoitzak irudi bat eta testuinguruan kokatzen lagunduko duten datuak ekartzen ditu: noiz sortu zen, nork, noren oroimenez, etab.

**2.** Ikerketak bateratzen ditugu: oroitzapenezko monumentu bat zer den, zer oroitzapenezko irudikapen mota dauden, zergatik sortzen diren, urteen poderioz bere zentzua nola aldatzen den, eta abar. Gure ikerketen irudiak gehitzen dizkiogu ikusizko mapari.

**3.** Lauko taldeetan, ikertutako monumentuetako bat aukeratzen dugu eta banaka marrazki azkarreko hainbat ariketa egiten ditugu. Marrazten dugu:

- Begiak itxita edo begiratu gabe.
- Minutu erdiko zirriborroa.
- Arkatza paperatik altxatu gabe.
- Irudiaren inguruko espazioari, espazio hutsari, erreparatuz.

Zirriborroak modu askean elkartuz, hainbat konposizio sortzen ditugu bandera edo mantel moduan.

**4.** Aldi berean, hausnartzen dugu zer kausa, pertsona, gertakari edo gizarte-mugimendu diren garrantzitsuak guretzat, eta zeini eskaini nahi geniokeen oroitzapenezko objektu bat.

**5.** Gure konposizioak oroitzapenezko piezan bihurtzen ditugu. Talde bakoitzak pertsona, kausa, gertakari edo mugimendu bat aukeratzen du, eta sortutako collagea erabiliz, esperimentazio bide desberdin bat hartzen du oroitzapenerako-tramankulu bat sortzeko. Honetan bihur daiteke:

- Bandera, pankarta, kartela, egunkaria edo murala. Sinbolo zahar edo berriak akrilikoekin margotzen ditugu.
- Hiru dimentsioko monumentu abstraktua, ebaki txikiak eginez eta papera tolestuz.
- Plaka oroigarria/ murala/ pintatua, txantilo eta spray bidez paperaren gainean inskripzio bat egiten dugu. Sinboloak ere sar ditzakegu.
- Oroitzapenezko ekitaldi bat iragartzeko kartela.

**6.** Zenbait folio elkartuz frogak egiten ditugu, gehien komeni zaiguna aurkitu arte.

### Ondorioak eta lerro irekiak

**1.** Gure piezak gure inguru hurbileko zein lekutan kokatuko genituzkeen pentsatzen dugu. Leku horietako batzuetan instalatzen ditugu.

**2.** Prozesuei argazkiak ateratzen diegu eta bidai liburu gisa koadernotxo txiki bat sortzen dugu. Fotokopiatu eta omendutakoarekin erlazioa duten pertsonei bidali edo oparitzen diogu.